



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2015eko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI Planaren ebaluazioa

Jarraipen-oroitidazkia

2015

AURKIBIDEA

0.	AURKEZPENA.....	6
I.	ATALA: VI. BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPENA. 2015EKO LABURPENA.....	7
1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK	8
2.	EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK	10
2.1.	GOBERNANTZA BERDINTASUNERANTZ ERAMATEKO NEURRIEI LOTUTAKO EMAITZAK	10
2.1.1.	BERDINTASUN-POLITIKEN PLANGINTZA EAEN	10
2.1.2.	BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK ETA EAĖKO ADMINISTRAZIOETAN BERDINTASUNA BULTZATZEN DUTEN LANGILEAK	12
2.1.3.	BERDINTASUN-POLITIKETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA GENERO- IKUSPEGIA EAĖKO AURREKONTUETAN	16
2.1.4.	EAĖKO ADMINISTRAZIOAREN ARAUEK GENEROAREN ARABERA IZANGO DUTEN INPAKTUARI BURUZKO AURRETIKO EBALUAZIO EZARTZEA	18
2.1.5.	PARTAIDETZA BERDINTASUN-POLITIKETAN	19
2.1.6.	BERDINTASUN-ALORREKO PRESTAKUNTZA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN	19
2.1.7.	BERDINTASUN-KLAUSULAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATU, HITZARMEN ETA DIRULAGUNTZETAN	22
2.1.8.	BERDINTASUN-ALORREKO BESTE HELBURU GARRANTZITSU BATZUEN BILAKAERA GOBERNANTZAREN ESPARRUAN.....	22
2.2.	ESKU HARTZEKO ARDATZEN JARRAIPENAREN EMAITZAK.....	25
2.2.1.	ESKU-HARTZEEN HELBURU POLITIKOAK.....	25
2.2.2.	BERDINTASUN-EKINTZEN GAIK	27
2.2.3.	ESKU-HARTZE MOTA.....	27
2.2.3.1.	PRESTAKUNTZA	29
2.2.3.2.	SENTSIBILIZAZIOA	31
2.2.3.3.	INFORMAZIOA, EZAGUTZA ETA ANALISIA	32
2.2.4.	EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK SORTU ETA KUDEATZEA	33
2.2.5.	BERDINTASUN-EKINTZEN ONURADUNENGANAKO HURBILPENA (ERAKUNDEAK NAHIZ PERTSONAK).....	34
2.2.5.1.	EKINTZEN PERTSONA ONURADUNAK.....	34
2.2.6.	EKINTZAK EGOKITZEKO NEURRIEN ERABILERA	35
2.2.7.	ESKU-HARTZEEN KOSTUA.....	36
II.	ATALA: BERDINTASUNAREN ALORREAN EAĖKO BOTERE PUBLIKOEN JORRATUTAKO JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIO XEHATUA. 2015.....	38

Taulen aurkibidea

1. taula.	EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2015	8
2. taula.	Berdintasun-planak eta -programak indarrean dituzten instituzio partaideen kopurua eta planen ezaugarriak. 2015.....	39
3. taula.	Barneko berdintasun-planak dituzten instituzioen kopurua. 2015	40
4. taula.	Barneko berdintasun-planik ez duten erakundeen lan-antolamenduan txertatutako neurriak. 2015	40
5. taula.	Berdintasunerako organo edo unitate administratiboak dituzten instituzioen kopurua. 2015	41
6. taula.	Berdintasuna bultzatzen ari den enpleguaren ezaugarriak. 2015.....	41
7. taula.	Langileak, kontratu motaren arabera. 2015.....	41
8. taula.	Berdintasuna bultzatzeko eginkizuna duten teknikariak. 2015	41
9. taula.	Dedikazio eskusiboan ari diren langileak, lanaldi motaren arabera 2015.....	42
10. taula.	Berdintasun-unitateen jardura batzuen ezaugarriak. 2015.....	42
11. taula.	Berdintasunari lotu gabeko koordinazio-egituretan parte hartzea. 2015	43
12. taula.	Berdintasunari lotutako erakunde-arte koordinazio-egituretako parte-hartzea. 2015	43
13. taula.	Berdintasunari lotutako sail eta sail-arte koordinazio-egiturak. Berdintasun-alorreko langileek parte hartu duten bilerak teknikariekin (T), politikariekin (P), biekin (B), eta parte hartu duten instituzioen kopurua. 2015	43
14. taula.	Estatistika eta azterketetan genero-ikuspegia txertatzea, era sistematikoan edo puntualean. 2015	44
15. taula.	Prentsa-oharrak eta azterlanak. 2015	44
16. taula.	Erakundeek sustatutako barne-prestakuntza. 2015.....	45
17. taula.	Erakundeek sustatutako berdintasun-alorreko barne-prestakuntza. 2015	45
18. taula.	Berdintasuneko barne-prestakuntzako partaidetza, kategoriaren arabera banakatuta. 2015	45
19. taula.	Barnekoa eta HAE Erena ez den edozein motatako prestakuntzako partaidetza. 2015	46
20. taula.	Berdintasun-alorreko prestakuntzaren banakapena (aurreko taula). 2015.....	46
21. taula.	HAE Eren sustatutako prestakuntza orokorra. 2015.....	46
22. taula.	HAE Eren sustatutako berdintasun-alorreko prestakuntza. 2015	46
23. taula.	Hautaketa-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2015.....	47
24. taula.	Hautaketa-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2015.....	47
25. taula.	Komunikazioan genero-ikuspegia txertatzea. 2015.....	48
26. taula.	Inpaktu-ebaluazioa duten arauen kopurua eta ezaugarriak. 2015	48
27. taula.	Arauetan berdintasuna lortzeko txertatu diren neurri motak (eta instituzio bakoitzeko organismo informatzaileen kopurua). 2015	48
28. taula.	Aurrekontu orokorra eta berdintasunerako berariak identifikatutakoa (eurotan). 2015.....	49
29. taula.	Gauzatutako berdintasun-aurrekontuen xehakapena (eurotan). 2015	49
30. taula.	Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak. 2015.....	49
31. taula.	Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia txertatzea. 2015	50
32. taula.	Berdintasun-irizpideak kontratazioetan. 2015	51
33. taula.	Berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2015	51
34. taula.	Berdintasun-irizpideak dirulaguntza eta laguntzetan. 2015	51
35. taula.	Berdintasun-irizpideak beketan. 2015	52
36. taula.	Kontratazio prozesuetan irizpideak ezartzeko arau, gidalerro eta abarren onarpena. 2015	52
37. taula.	Enplegu publikorako sarbidea izateko, sustapena lortzeko eta sariak lortzeko epaimahaiak. 2015.....	53
38. taula.	Kide anitzeko zuzendaritza ordezkariak orekatuak. 2015	53
39. taula.	Herritarren parte hartzea eta berdintasuna. 2015	54
40. taula.	Identifikatutako jardura kopurua, erakunde motaren arabera. 2015.....	55
41. taula.	Aurreko urteko jarraipena diren jarduketaren kopurua eta ehunekoa, erakunde motaren arabera. 2015.....	55

42. taula:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jardueren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	55
43. taula:	Gai jakin bat garatzen duten jardueren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	56
44. taula:	Esku-hartze mota berezi modura formulatzen diren jarduketaren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015.....	56
45. taula:	Herritarrak prestatzeko jarduketetako partaideen kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	56
46. taula:	Prestakuntza-helburu zehatzetara zuzendutako jarduketaren kopurua (herritarrentzako prestakuntza), erakunde motaren arabera. 2015	57
47. taula:	Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretako partaideen kopurua. 2015	57
48. taula:	Zerbitzu Publikoentzako prestakuntza jardueren kopurua, prestakuntza helburuen eta instituzio motaren arabera. 2015	57
49. taula:	Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jarduketetako parte-hartzaileen kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	58
50. taula:	Sentiberatze jardueren kopurua tipologiaren eta erakunde motaren arabera. 2015	58
51. taula:	Jardunbide jakinetan zentratutako informazio-, ezagutza-eta azterketa-jarduketaren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	58
52. taula:	Zerbitzu eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jardueren kopurua eta ezaugarritzea, erakunde motaren arabera. 2015	59
53. taula:	Azken hartzaile diren alorren arabera jardueren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	59
54. taula:	Gizon, emakume eta transgenerokoei/transexualei bereziki zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	59
55. taula:	Talde bereziei zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015.....	59
56. taula:	Berdintasunaren beste helburu batzuetara ere —ez soilik emakume eta gizonei— zuzendutako jardueren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	60
57. taula:	Talde jakinetara egokitzeko neurriak jasotzen dituzten jardueren kopurua, erakunde motaren arabera. 2015.....	60
58. taula:	Jakinarazitako jardueren kostua, erakunde motaren arabera. 2015	60

Diagramen aurkibidea

1. diagrama.	Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten instituzioen kopurua, erakunde motaren arabera. 2015	11
2. diagrama.	Ebaluazioan parte hartu duten instituzioen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2015.....	13
3. diagrama.	EAEko berdintasun-langileak, instituzioaren arabera. 2015.....	14
4. diagrama.	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, instituzioaren arabera. 2015	15
5. diagrama.	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak, instituzioaren arabera. 2015	15
6. diagrama.	EAEko berdintasun-aurrekontua instituzioaren arabera (mila €-kotan) 2015	16
7. diagrama.	Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2015.....	17
8. diagrama.	Berdintasun-neurriak gehitzea eragin duten inpaktu-txostenen kopurua, instituzioen arabera. 2015	18
9. diagrama.	Berariaz berdintasun alorrekoak diren edota funtzioan nahiz osaeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2015	19
10. diagrama.	EAEko administrazioetan prestakuntza (orokorra eta berdintasun-alorrekoa) jaso duten langileak. 2015.....	20
11. diagrama.	Administrazio publikoetako gizon eta emakumeak prestakuntza orokorrean eta berdintasun-alorreko prestakuntzan. 2015	20
12. diagrama.	Berdintasunean trebatutako langileak, instituzioaren arabera. 2015.....	21
13. diagrama.	Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2015	21
14. diagrama.	Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan. 2015	22

15. diagrama.	Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2015	23
16. diagrama.	Berdintasun-alorreko unitateen eta langileen partaidetza euren instituzioetako koordinazio-egitura orokorretan.	23
17. diagrama.	Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua epaimahaietan eta abarretan. 2015.....	24
18. diagrama.	EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2015	25
19. diagrama.	Helburu politiko jakin bat bilatzen duten jarduketaren kopurua. 2015	26
20. diagrama.	Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketaren kopurua. 2015.....	27
21. diagrama.	Jarduketa kopurua esku-hartze motaren arabera. 2015.....	28
22. diagrama.	EAEn berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarak), instituzioaren arabera. 2015	29
23. diagrama.	Herritarak trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2015	29
24. diagrama.	EAEn berdintasunean trebatutako langile publikoak, instituzioaren arabera. 2015	30
25. diagrama.	Zerbitzu publikoentzako prestakuntza jardueren kopurua, helburuaren arabera. 2015	30
26. diagrama.	Herritarrentzako prestakuntza eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntza parte hartu dutenen kopurua. 2015	31
27. diagrama.	Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, instituzio sustatzailearen arabera. 2015	31
28. diagrama.	Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza motaren arabera. 2015.....	32
29. diagrama.	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2015	32
30. diagrama.	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarritzko edukiaren arabera. 2015	33
31. diagrama.	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. 2015	33
32. diagrama.	Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2015	34
33. diagrama.	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2015.....	34
34. diagrama.	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2015	35
35. diagrama.	Beste desberdintasun batzuen aurka egitera zuzendutako ekintzen kopurua. 2015	35
36. diagrama.	Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2015.....	35
37. diagrama.	EAEn berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, instituzioaren arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta ekarri dutenak. 2015	36
38. diagrama.	Jakinarazitako jarduketaren kostu osoa, instituzioaren arabera. 2015.....	37
39. diagrama.	Identifikatutako sailek ezarpenean parte hartu duten berdintasun-planak dituzten udalerrak eta aldundiak. 2015	39

0. AURKEZPENA

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VI. Planak xedatzen duenez, EAEko botere publikoek ekitaldi bakoitzean alor horretan jorratutako jardueren berri jasoko duen ebaluazio-agiri bat idazteko betebeharra dute.

Agindu horri erantzutea da, hain zuzen, agiri honen asmoa. Zehazki, EAEko botere publikoek 2015ean egindako esku-hartzeei buruzko informazioa aurkeztuko dugu bi atal bereizitan. Lehenengo atalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean EAEko instituzioek landutako gai nagusien bilakaera laburtzen du. Bigarren atala estatistika-eranskin gisa planteatu dugu eta aurreko informazioaren xehakapena jasotzen du, taulatan bilduta.

Kasu batean zein bestean, Berdintasunerako VI. Planaren egiturari jarraitu diogu. Lehenik eta behin, Gobernantzari lotutako jardunak landu dira (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako oinarritzko betekizunak, genero-ikuspegia administrazioen funtzionamenduan eta antolamenduan txertatzeko aukerari dagokionez), eta, ondoren, VI. Planaren hiru ardatzen inguruan egindako esku-hartzea. Honako hauek dira hiru ardatzak, zehazki: balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea; gizarte erantzunkidea garatzea; eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borroka.

Instituzioek bi esparruei buruz emandako informazioa (Gobernantzari lotutako galde-sorta bat instituzio bakoitzeko, eta instituzioek jorratutako esku-hartze interesgarri bakoitzari buruzko galde-sorta bat) bildu eta aztertzeak aukera ematen du aplikazio informatiko batek. Horretaz gain, instituzioetan berdintasun-politikak ezartzeaz arduratzen diren langileek informazio osagarria eta datuak ulertzen laguntzeko zehaztasunak erantsi dituzte. Hemen aurkeztuko dugun informazioa 2015eko abendutik 2016ko apirilera bitartean jasotakoa da.

Agiri hau prestatzean, egituratzean eta informazioa zehaztean denbora-homogeneotasuna mantendu nahi izan dugu, aztertutako datuen urtetik urterako bilakaera ulertzen lagunduko duelakoan.

I. ATALA:
VI. BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPENA.
2015EKO LABURPENA

1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK

EAEko botere publikoek orotariko tresna eta jarduketan bidez jorratu beharreko printzipio- eta helburu-esparrua zehazten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak. Tresna horien artean daude, besteak beste, instituzio bakoitzak berdintasuna bultzatzeko burutuko dituen esku-hartze zehatzak jasotzen dituzten plangintza eta programazio propioak.

Txosten honek jasotzen duen botere publikoen jardueraren jarraipenaren esker, EAEko berdintasun-politiken urtetik urterako bilakaera ikus daiteke, esku-hartzeen egikaritzearen ikuspegitik. Ez dugu baloratu, ordea, VI. Planak emakumeen eta gizonen berdintasunerako proposatzen dituen gizarte-aldaketako helburuak betetzea lortzen duten ala ez.

Ikuspegi horrek mugak baditu ere (ebaluazioaz baino, jarraipenaz arduratzen baita), oinarrizko alderdi batzuk argitzen ditu, hala nola zer-nolako aurrerapen-maila egon den berdintasun-politiken plangintzaren alorrean, erakundeetan berdintasun-politikak sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapenean eta administrazio publikoek berdintasuna bultzatzeko bideratutako aurrekontuetan, besteak beste.

Adierazi beharra dago, halaber, EAEko administrazio publikoen esparru guztiek hartzen dutela parte urtetik urterako jarraipen honetan: Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek, udalek eta mankomunitate edo partzuergoek, erakunde autonomoek, erakunde publikoek eta kapital publikoko enpresek, bai eta berdintasun-esparruan eginkizun garrantzitsua duten beste erakunde eta instituzio batzuek ere (adibidez, EHUK eta Batzar Nagusiek).

2015ean 115 instituziok eta erakundek hartu dute parte (2014ko antzeko kopurua). Udalek osatzen dute informatzaile talderik handiena. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako sailak eta foru aldundiak funtsezko piezak dira, beste erakunde autonomo eta erakunde esanguratsu batzuekin batera, eta urtetik urtera mantentzen dute beren partaidetza.

1. taula. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2015

Instituzioak	Kopurua
Eusko Jaurlaritzako sailak	9
Foru Aldundiak	3
Udalak ¹	75
Mankomunitateak eta Partzuergoak	2
Erakunde autonomoak eta erakunde publikoak	12
Kapital publikoko enpresak	10
Beste instituzio eta erakunde batzuk	4
GUZTIRA	115

¹ 71 udalek erantzun diote Gobernantza arloari, 39k euren gobernantza-alorreko esku-hartzei eta jardueri buruzko informazioa eman dute eta 4k jarduera-fitxak soilik txertatu dituzte.

Hona hemen ebaluazio honetan parte hartu duten eta dokumentuan aurkeztutako informazioa eman duten erakunde eta entitateak:

Abadiñoko Udala	Ortuellako Udala
Abaltzisketako Udala	Pasaiaiko Udala
Abanto-Zierbenako Udala	Plentziako Udala
Amezketako Udala	Portugaleteko Udala
Amorebieta-Etxanoko Udala	Sestaoko Udala
Amorotoko Udala	Sopelako Udala
Aramaioko Udala	Soraluzeko Udala
Arantzazuko Udala	Sukaerrietako Udala
Areatzako Udala	Ugaoko Udala
Arteako Udala	Urdulizeko Udala
Astigarragako Udala	Urnietako Udala
Azkoitiko Udala	Zaldibarko Udala
Baliarraingo Udala	Zaldibiako Udala
Balmasedako Udala	Zarauzko Udala
Barakaldoko Udala	Zeanuriko Udala
Barrikako Udala	Zierbenako Udala
Beasaingo Udala	Zigoitiko Udala
Bediako Udala	Zumaiako Udala
Berangoko Udala	Haurreskolak
Bergarako Udala	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea
Bermeoko Udala	Lehendakaritza
Berrituko Udala	Herri Administrazio eta Justizia Saila
Berrizko Udala	Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
Bilboko Udala	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Debako Udala	Ogasun eta Finantza Saila
Dimako Udala	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Donostiako Udala	Segurtasun Saila
Durangoko Udala	Osasun Saila
Elgoibarko Udala	Ingurumena eta Lurralde Politika Saila
Elorrioko Udala	Arabako Foru Aldundia
Erandioko Udala	Bizkaiko Foru Aldundia
Errenteriako Udala	Gipuzkoako Foru Aldundia
Galdakaoko Udala	Basquetour
Gatikako Udala	Euskadiko Kirol Portuak
Gernika-Lumoko Udala	Euskotren
Getariako Udala	Ihobe
Getxoko Udala	Itelazpi
Gordexolako Udala	Izenpe
Gorlizko Udala	Neiker-Tecnalia
Hernaniko Udala	Parque Tecnológico de Alava SA
Igorreko Udala	Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, SA
Irungo Udala	SPRI
Lasarte-Oriako Udala	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia
Leioako Udala	URA - Uraren Euskal Agentzia
Lekeitioko Udala	Emakunde
Lemoako Udala	ETS. Euskal Trenbide Sarea
Lemoizko Udala	Eustat
Lezoko Udala	EEE. Energiaren Euskal Erakundea
Lizartzako Udala	Etxeparen Institutua
Mendexako Udala	HAEE
Mutrikuko Udala	Lanbide
Nabarnizko Udala	Osakidetza
Olaberriko Udala	Osalan
Oñatiko Udala	Unibasq
Ordiziako Udala	HAZI
Urduñako Udala	Arabako Batzar Nagusiak
Orendaingo Udala	Gipuzkoako Batzar Nagusiak
	Euskal Herriko Unibertsitatea

2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK: GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK

Kapitulu honetan, analisiaren bi alderdietan garrantzitsuentzat jo ditugun gaien laburpena azalduko dugu: EAEko botere publikoen gobernantzan genero-ikuspegia ezartzea, eta botere publikoek zer jarduketa egiten dituzten balioen aldaketa, emakumeak ahaluntzea eta gizarte-erantzukidetasuna sustatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko.

2.1. Gobernantza berdintasunerantz eramateko neurriei lotutako emaitzak

EAEko administrazio publikoen jardun orokorrean genero-ikuspegia txertatzera bideratuta daude VI. planean gobernantzaren eremuan zehaztutako helburuak, *emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontuan har daitezen, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txerta daitezen politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.*

Hurrengo ataletan, helburu horien inguruan lortutako emaitza nagusien ikuspegi orokorra eskaintzen da. Agiri honen bigarren zatian, tauletan informazio xehakaturik eskaintzen dugunean, instituzio-esparruetan lortutako egoerak eta lorpenak aurkeztuko ditugu.


2.1.1. Berdintasun-politiken plangintza EAEn

4/2005 Legeak EAEko eremuan gizonen eta emakumeen berdintasunerako planak egiteko premia arautzen du. Ezartzen duenez, *legegintzaldi bakoitzean, eta sei hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira.*

Jarraibide horiek oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek eta udalek jarraibideekin bat datozen berdintasun-planak eta -programak onartu behar dituzte. Orobat, kapital publikoa nagusi den enpresa partaidetuetara zabaltzen da berdintasun-alorreko esku-hartzeak planifikatzeko derrigorra.

2015eko datuek erakusten dute berdintasun-alorreko plangintza sendotu egin dela Eusko Jaurlaritzan (sail guztietan), hiru foru aldundietan eta ebaluazioan parte hartu duten udalerrien arteko 55etan². Erakunde autonomoei eta erakunde publikoei dagokienez, berdintasun-alorreko plangintzak erronka izaten jarraitzen du aurten ere³. Eta, berriro ere, azpimarratzekoa da EHUren berdintasun-plana.

1. diagrama. Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten instituzioen kopurua, erakunde motaren arabera. 2015



Bildutako datuek agerian jartzen dute EAEko erakundeek berdintasun-alorreko plangintza-prozesuak sistematizatzeko eta hobetzeko egin duten lana: ia erakunde guztiek adierazi dute aurretiko diagnostikoa izan dela euren planak prestatzeko oinarria; gainera, instituzioetako sailek 2015ean izan duten partaidetzak (jakinarazi dizkiguten kasuen % 86) agerian jartzen du aurreko urtean baino inplikazio handixeagoa lortu dela.

Instituzioetako sailek plangintzako jarduketak diseinatzeko eta ezartzen ere hartzen dute parte, eta partaidetza hori ia sistematikoa da Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta hiru foru aldundietan. Udalerriei dagokienez, sail jakin batzuek partaidetza handiagoa izan dutela ikusten da; zehazki, Kulturak, Euskarak, Kirolak, Gizarte Politikak, Hezkuntzak eta Alkatetzak.

Berdintasun-planen ebaluazioa⁴ funtsezkoa da berdintasun-planen garapenaz jabetu eta horren arabera hobetzeko. Bada, Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan eta erakunde autonomo eta publikoetan era sistematikoan jorratzen da, behintzat aurreikuspenari dagokionez. Udalei erreparatuta, jakinarazi dizkiguten berdintasun-planen % 64k ebaluazioa egitea aurreikusita dauka.

² Gobernantzaren alorreko informazio bete duten 71 udalerriak hartu ditugu erreferentziazat

³ Halere, azpimarratu egin behar da aurten ebaluazioan sartu diren bi organismoek berdintasun-plana prestatzeko bidean daudela adierazi dutela.

⁴ EHUK eta parte hartu duten mankomunitateek/partzuergoek euren berdintasun-planak ebaluatzea aurreikusita daukate.

Herritarrek berdintasun-alorreko plangintzan duten partaidetzari dagokionez, batez ere foru eta udal eremura mugatzen da, eta horixe adierazi dute ebaluazioan parte hartu duten 2 aldundiek, 40 udalerriek eta 2 mankomunitate/partzuergoek. EHUren plangintzarekin batera, 45 berdintasun-plan prestatzen hartu dute parte herritarrek.

Gainera, 53 instituziok esan dute berdintasunari lotutako beste plan eta programa batzuk dituztela⁵.

Administrazio publikoetako barneko berdintasun-planen⁶ harira, 2015ean kapital publikoko enpresa gehienetan ezarri egin dira (ebaluazioan parte hartu duten 10etatik 8tan), baina era mugatuan, aldiz, gainerako erakundeetan⁷ (11 guztira). Barneko berdintasun-planik ez dutenen artean, laneko eta etxeko bizitzak uztartzeko neurriak dira ugariak.

2.1.2. Berdintasunerako unitate administratiboak eta EAEko administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, sailean bertan eta hari atxikitako erakunde autonomoetan berdintasuna bultzatzeko, koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko unitate administratibo bat izango dute, gutxienez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail guztiek.

Lege horrek, halaber, foru- eta toki-administrazioak egokitzeko premia arautzen du, bakoitzari dagokion esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, koordinatu eta garatuko dituen entitate, organo edo unitate administratibo bat egon dadin gutxienez. Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak betebeharrak hori bera ezartzen die erakunde autonomo, sozietate eta gainerako entitate publikoei.

2015ean instituzioek emandako informazioak agerian jartzen du EAEko administrazioetan oso era ezberdinetan hezurmamitu direla unitate edo organo horiek. Hala, Administrazio Orokorrean eta ebaluazioan parte hartu duten foru administrazioetan eta mankomunitate eta partzuergoetan legezko agindu hori bete egiten da; alabaina, tokiko administrazioen % 41ean eta organismo autonomoen eta erakunde publikoen % 25ean⁸ baino ez dira ezarri.


⁵ Gehienak udalerriak dira (40).

⁶ Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurrien multzo antolatua bat dira, eta enpresan edo erakundeetan emakumeen eta gizonen arteko tratua- eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuagatiko diskriminazioa desagerraraztea dute helburu.

⁷ 2014an Administrazio Orokorrean eta beraren erakunde autonomoen berdintasunerako I. Plana prestatzeko lan-plana onartu zuen negoziazio kolektiboan.

⁸ EHUk ere esan du berdintasuna bultzatzeko egitura duela, eta Arabako Batzar Nagusiek jakinarazi dute 2015ean Berdintasun Batzordea zegoela (IX. legegaldian) eta Berdintasun eta Giza Eskubideen Lehendakaritza Batzordea osatu zela X. legegaldian. Lehenengoa bost aldiz bildu da eta bigarrena bi aldiz 2015ean.

2. diagrama. Ebaluazioan parte hartu duten instituzioen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2015



Datu hori garrantzitsua da, administrazioen egituren berdintasuna bultzatzeko funtzioaren berri ematen digulako. Eta hori bezain baliotsua da jakitea zenbat pertsona aritzen diren, eskusiboki edo beste eginkizun batzuekin batera, erakunde horietan berdintasun-politikak ezartzen.

Hala, 2015ean 46 instituziok erantzun dute berdintasun-egitura formalak dituztela, baina 79 instituziok esan dute berdintasuna bultzatzeko langileak dituztela.


Instituzioek jakinarazi dutenez, 180 pertsona aritu dira 2015ean EAEn berdintasuna bultzatzen. Dena dela, kopuru orokor horrek denetarik ekoerak biltzen ditu: prestakuntza espezifikoko esanguratsua, arduraldi eskusiboa eta kontratu finkoa duten berdintasun-teknikariak dira batzuetan, eta beren askotariko lan-jardueren artean funtzio hori duten, aldi baterako kontratuak dituzten eta prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak beste batzuetan.

Aniztasun horren adibiderik argiena erakunde autonomoetan⁹, erakunde publikoetan eta kapital publikoko enpresetan ikus daiteke. Izan ere, berdintasuna bultzatzeko jardunean pertsona kopuru handi samarra badago ere, alor horretarako dedikazioa eta eginkizunak askoz ere lausoagoak dira.

Hala, langile horien artean hamarretik lau udal mailan kokatzen dira (78 lagun). Emakunde da berdintasuna bultzatzeko langile gehien dituen erakundea.

⁹ Emakunderen eta beste erakunde batzuen artean dagoen aldea dela eta, batzuetan erakunde hori aparte sailkatu da. II. ataleko tauletan bilduta erakusten dira erakunde autonomo eta erakunde publiko guztien datuak.

3. diagrama. EAEko berdintasun-langileak, instituzioaren arabera. 2015




EAEn berdintasuna sustatzen duten langile horien artean, bi heren inguru (114 lagun) berdintasuna bultzatzeko teknikaritzat har ditzakegu. Eusko Jaurlaritzan, foru-aldundietan eta udaletan berdintasunaren alde dihardutenen guztiak dira. Udaletan ere gehiengoa dira (% 83) baina organismo autonomoetan, berriz, ehunekoa txikiagoa da: % 42.

Identifikatu ditugun langileen¹⁰ ia erdiak (88 lagunek) berdintasun-alorreko berriazko prestakuntza jaso dute, eta horien artean emakumeak dira nagusi, argi eta garbi (% 85). Alor horretan ari diren gizonen gehiagotan jardun ohi dute lanaldi partzialean (jarraipenean identifikatutako 27etatik 16).


Eusko Jaurlaritzako sailetan, foru aldundietan eta Emakunden berdintasun-alorrean ari diren pertsonen dedikazio eskusiboa dute, era sistematikoan. Ildo beretik, hala jarduten dute udaletan ari direnen gehienek ere (% 87). Gainerako instituzioetan, berriz, zeregin hori beste jarduera batzuekin bateratzen dute.

¹⁰ Emakumek baditu beste 6 langile, berdintasun-teknikariak izan gabe ere, berdintasunaren alorreko berriazko prestakuntza garrantzitsua dutenak. Kasu horretan, kudeaketan eta administrazioan lan egiten dutenak ere bultzatzen dituzte berdintasun-politikak.

4. diagrama. Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, instituzioaren arabera. 2015



5. diagrama. Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak, instituzioaren arabera. 2015



Berariaz berdintasuna bultzatzen lan egiten duten pertsonen ia heren bat lanaldi partzialean ari dira. Hau da, alor horretan era eskusiboan ari diren 140 lagunetatik 40 lanaldi partzialean ari dira. Identifikatutako langileen % 73k kontratu finkoa du edo funtzionarioa da.

Beste alde batetik, 2015ean berdintasun-alorrean aritu diren langile berriei erreparatuz gero, ikusiko dugu berdintasun-alorreko teknikari aritzeko hautapen- eta sustapen-prozesu guztiek¹¹ alor horretako 150 orduko trebakuntza eskatu dutela, gutxienez.

¹¹ 6 instituzioek jorratutako 13 prozesu.


2.1.3. Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko administrazioek, foru-administrazioek eta toki-administrazioek lege horretan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta neurriak hartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitu eta zehaztuko dituzte beren urteko aurrekontuetan.

EAEko instituzioek 65 kasutan jakinarazi dute berdintasunerako berariazko aurrekontua dutela, eta horietatik 49k gauzatutako gastua identifikatu ahal izan dute¹². Hala, guztira 25,2 milioi euroko berdintasun-aurrekontua gauzatu da, aurrekontuetan esleitutako zenbatekoaren ia bikoitza. Nolanahi ere, foru aldundiek beren jarduketei buruz emandako informazioari erreparatuta, beste 7 milioi euro ere gauzatu dira eta, beraz, esan dezakegu 32 milioi eurotik gora bideratu direla berdintasun-politiketara. Zenbateko horiek kontuan hartuta, ebaluazioan parte hartu duten instituzioek 2015eko aurrekontuen % 0,1 inguru bideratu dute berdintasun-alorrera.

Aurrekontu horien banaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren sailek esleitu dute zatirik handiena. Foru aldundiren batek ez duenez informazioa eman, udal aurrekontuen pisua dagokiena baino handiagoa da; halere, eta lehen esan dugun bezala, foru aldundiek askoz ere kostu handiagoko jarduketak identifikatu dituzte berdintasun-alorrean. Erakunde autonomoak bigarren tokian daude, baina Emakunderen aurrekontua dago, ia osorik, horren oinarrian.

6. diagrama. EAEko berdintasun-aurrekontua¹³ instituzioaren arabera (mila €-kotan) 2015




¹² Azkenean gauzatutako aurrekontuari buruzko datuak emateko zailtasuna azpimarratu dute instituzio batzuek, ebaluazioa egiteko unean ekitaldia oraindik itxi gabe zegoen eta. Foru aldundiekin bereziki, horixe gertatu da.

¹³ Bi foru aldundik esleitutako aurrekontuari buruzko datuak eman dituzte (1,8 milioi) eta batek baino ez gauzatutako aurrekontuari buruzkoak (0,4 milioi). Halere, 3 aldundien jardueretara bideratutako kostua 7,8 milioi eurokoa izan da, eta zenbateko horrek zehatzago irudikatzen du instituzio horiek berdintasunaren alorrean egindako aurrekontu-ahalegina. Diagraman instituzioek identifikatutako aurrekontu esleituak txertatu dira, Eusko Jaurlaritzaren sailen eta erakunde autonomoen kasuan izan ezik. Horietan, identifikatutako aurrekontu gauzatuak txertatu dira, berdintasun-politiketan egindako gastua hobeto jasotzen dutelakoan.

VI. Planaren jarraipenaren bidez, emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako aurrekontutik berdintasun-planetara eta -programetara bideratutako zenbatekoak identifikatu nahi dira. Areago, partida horretatik bereziki berdintasun-unitateetara bideratutakoak zehaztu nahi dira (berdintasun-unitateko langileen kostua eta langile horiek berdintasun-jarduerak burutzeko duten aurrekontua bereizita), bai eta egituretara eta zerbitzuetara bideratutako zenbatekoak ere (biak ala biak bereizita). Zenbait erakundek langileen eta zerbitzu batzuen kostua plan edo programen kostuaren baitan sartzen dutenez gero, banakapen hori gutxi gorabeherakoa da, eta gainjartze batzuk ere baditu.

Hala, *planek eta programek* hartzen dute aurrekontuaren zatirik handiena, jakinarazitako aurrekontuen % 54. Ondoren datoz *egiturak eta zerbitzuak* (% 32,2) eta berdintasun-unitateetako langileek, berriz, berdintasun-alorreko aurrekontu osoaren % 14 inguru hartzen dute.

7. diagrama. Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2015



Indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko baliabideek aurrekontuaren zatitik handiena hartzen dute. Eusko Jaurlaritzako sailetan, adibidez, 2015ean 11 milioi euro bideratu dira esparru horretara, eta foru aldundietan ere berdintasun-politikaetako gastuaren zatirik handiena hartzen du. Adibidez, emakumeen aurkako indarkeriari lotutako arreta psikologikorako programek, familiako esku-hartzeek eta abarrek Bizkaiko Foru Aldundiak alor horretara bideratzen duen aurrekontuaren 1,6 milioi hartzen dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratzen duenetik 1,4 milioi euro baino gehiago.

EAEko instituzio guztiek 2015ean emandako datuek erakusten dute aurrekontuak prestatzean genero-ikuspegia hein batean soilik ezartzen dela. Eusko Jaurlaritzako sailetan eta foru aldundietan kontuan hartzen bada ere, oso presentzia mugatua du administrazio publiko osoari erreparatuz gero (parte hartu duten 115 instituzioetatik 15ean). Zehaztu egin behar da, ordea, udalerrri batzuetan ikuspegi hori txertatzeko asmoz ari direla, eta horretarako lantaldeak eta prestakuntza antolatu dituztela. Gipuzkoako Foru Aldundia nabarmentzen da alor horretan, genero-ikuspegia duten 23 aurrekontu partzial prestatu baititu.

2.1.4. EAEko administrazioaren arauk generoaren arabera izango duten inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazio ezartzea


4/2005 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, nahitaezkoa da arauak lantzen hasi aurretik arauok berdintasunean izango duten eragina ebaluatzea.

Lege-agindu horrek garrantzi handia du, arauak edo administrazio-egintzetarako aurreikusitako jardura guztiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean izango duten ondorioen arabera baloratzeko aukera irekitzen duelako eta, hala badagokio, indarrean jarri aurretik zuzentzeko aukera ematen duelako. Horrenbestez, etorkizunean irismen handia izango duen prebentzio-tresna da.

Azken urteetan, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen egin dituzte elkarlanean ebaluazio hori sustatzeko; batik bat udalerrietan, administrazio-maila horretan baitago ezartzeko arazo handiena.

2015ean, berriro ere ikusi dugu Eusko Jaurlaritzako sailetan eta foru aldundietan luze eta zabal ezarri dela¹⁴ baina udalerrietan, aldiz, oso-oso maila apalean egiten direla inpaktuaren aurretiko ebaluazioak. Dena dela, arau-agindu hori gauzatzeko prozedurak zehazten hasteko ahaleginak antzematen dira: 2015ean, 7 udalek esan dute inpaktu-ebaluazioak arautzeko gidalerroak prestatzeko bidean daudela. Era berean, eta foru aldundien kasuan izan ezik (bertatik etorritako datuek ez baitute informazio osoa hartzen), halako ebaluazioa egin den kasuen % 60an araua egokitu egin da, berdintasuna sustatzeko neurriak gehitzeko.

8. diagrama. Berdintasun-neurriak gehitzea eragin duten inpaktu-txostenen kopurua, instituzioen arabera.




¹⁴ Foru aldundietako batek baino ez du eman berdintasun-neurriek ekarri duten inpaktu-ebaluazioen kopurua, eta 21 jarduketari soilik lotuta. Horregatik, kasu horretan ezin da aztertu inpaktu-txostenen kopuruaren eta neurri zuzentzaileen arteko erlazioa.

2.1.5. Partaidetza berdintasun-politiketan

Gardentasunaren eta herritarrengandiko hurbiltasunaren alde instituzioek egin duten apustuaren ondorioz, herritarrek geroz eta partaidetza handiagoa dute gobernantzan. Logikoki, joera hori ikusten da berdintasun-politiken alorrean ere.

Jarraipen honetan parte hartu duten instituzioek jakinarazi dutenez, herritarrek berdintasun-alorrean parte hartzeko 37 organo eta kontseilu dituzte: guztira identifikatutako 168en % 22. Antzeko kopuru batek (berdintasun-arloko espezifikoak ez badira ere) berdintasuna txertatzen dute beren funtzio eta helburuen artean, eta berdintasuna sustatzen duten entitateak txertatzen dituzte beren osaeran (askok bi baldintzak betetzen dituzte). Organo horietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituen parte-hartzea bermatzeari dagokionez, esan beharra dago ez dela hain ohikoa (27 kasu).

9. diagrama. Berriaz berdintasun alorrekoak diren edota funtzioan nahiz osaeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2015



2.1.6. Berdintasun-alorreko prestakuntza administrazio publikoetan


4/2005 Legeak 17. artikuluan ezartzen duenez, euskal erakundeek langile guztiak prestatu behar dituzte, eta teknikariek zein ardura politikoa duten pertsonak, gutxienez, genero-hesi eta desberdintasun-esparru nagusiei buruzko oinarritzko jakintzak eduki behar dituzte, arlo eta jarduera guztietan berdintasuna zeharka bultzatu ahal izateko.

Berdintasun-politikak sustatzen eta bultzatzen lan egiten duten pertsonak, normalean, alor horretako berriazko prestakuntza sendoa izaten dute (150 orduetik gorakoa), batez ere administrazio orokorrean, foru administrazioan eta toki-administrazioan. Lehen ere aipatu dugu 2015ean enplegu publikoan berdintasunari lotutako lanpostuak betetzeko hautapen- eta sustapen-prozesuetan berriazko prestakuntza garrantzitsua eskatu izan dela.


EAEko administrazio publikoetan berdintasuna bultzatzeko egitura espezializatua osatzen duten pertsona horien jarduera arrakastatsua izan dadin, beharrezkoa da, gainera, administrazio guztiek emakumeen eta gizonen desberdintasunei buruzko oinarritzko prestakuntza/sentsibilizazioa edukitzea, eta, zenbait kasutan, arloko prestakuntza espezializatua, beren jarduera zehatzean (kontratazioan, arau-jardueran eta abarrean) berdintasunaren erronkei aurre egiteko.

2015ean, EAEko administrazioan lan egiten duten 3.876 lagunek jaso dute berdintasun-alarreko prestakuntza. Horietatik % 63,4 emakumeak dira eta % 36,6 gizonak. Jarraipenean identifikatu dugun prestakuntzako partaidetza osoa aintzat hartuta, % 8,2 berdintasun-alarrekoa izan da. Prestakuntza horren zatirik handiena instituzioek eurek sustatu dute, edota bertako langileak beste prestakuntza batean parte hartzea bultzatu dute instituzioek. Berdintasun-alarreko prestakuntza jaso duten EAEko administrazioako langileen % 10 inguruk hartu du parte HAEK sustatutako prestakuntzetan.


10. diagrama. EAEko administrazioetan prestakuntza (orokorra eta berdintasun-alarrekoa) jaso duten langileak. 2015



11. diagrama. Administrazio publikoetako gizon eta emakumeak prestakuntza orokorrean eta berdintasun-alarreko prestakuntzan. 2015




12. diagrama. Berdintasunean trebatutako langileak, instituzioaren arabera. 2015



Berdintasunean berariaz trebatutako langileen kategoria profesionalari dagokionez¹⁵, gehien-gehienak teknikariak dira (hamarretik zazpi baino gehiago), baina administrazioko langile asko ere badira tartean (% 14,3). Buruek eta zuzendaritzako langileek osatzen dute laugarren talderik handiena (% 10,1) eta arduradun politikoak, berriz, guztizkoaren % 4,6 dira.

13. diagrama. Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2015



¹⁵ Lanbide-mailen arabera xehakaturako informazioak guztira informatu den langileen erdia inguru identifikatzen du (ia 1.600 lagun).


2.1.7. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak bi neurri ezartzen ditu arlo horretan: ahal denean genero-ikuspegia kontratuak esleitzeko irizpide gisa txertatzea (20. artikulua) eta entitate edo pertsona esleipendunak bere lana egitean gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzeko derrigorra.

Azken urteotan, administrazioen kontratazio, hitzarmen, laguntza eta dirulaguntzetan berdintasun-irizpideak sartu dira pixkanaka-pixkanaka; halere, oraindik ez da jarrera orokorra, batez ere hitzarmenen kasuan (kontratuetan eta, hein txikiagoan, dirulaguntzetan, kasu gehienetan ezartzen da).

Irizpide horien aplikazioa sustatzeko prestakuntza-mintegiak eta prestakuntza-ekintzak bultzatu dira, eta jarraibideak, aginduak, arauak eta abar onartzearen bidez, sistematikoki txertatzeko ahaleginak ere egin dira. Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen % 38k jorratu ditu prozesu horiek, edota jorratzen ari da, bestela.

14. diagrama. Berdintasun-irizpideak kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan. 2015




2.1.8. Berdintasun-alorreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikulua ezartzen duenez, euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan. Helburu hori lortzeko, berdintasun-politiken ardura duten pertsonak (politikariak eta teknikariak) eta beste politika sektorial eta zeharkako batzuen arduradunak elkarrekin antolatzea sustatzen du VI. Planak, politika publikoak planifikatzean eta ezartzean koordinatuta jarduteko asmoz.

Berdintasun-langileei galdetu diegu zer parte-hartze izan duten plan sektorial horiek lantzen eta ezartzen, eta ea genero-ikuspegia txertatu den plangintzak diseinatzean —emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen diagnostikorik eta azterketarik egin ote den, eta berdintasunari lotutako helburuak edo berdintasunaren aldeko neurriak txertatu ote diren— eta emaitzen ebaluazioan —jarraipen- eta ebaluazio-sisteman genero-adierazlerik txertatu ote den—.


2015eko datuek erakusten dute plan gehienetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-helburuak txertatzen direla eta plangintzaren oinarrian genero-ikuspegia txertatuta duten diagnostikoak egiten direla, nahiz eta era sistematikoan izan ez. Berdintasun-teknikariek plan horiek prestatzeko eta burutzeko duten partaidetzari dagokionez, ehunekoa pixka bat txikiagoa da.

15. diagrama. Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2015



Administrazio publikoetan berdintasun-politikak jorratu eta sendotzeko bidean berdintasunaren zeharkakotasuna bultzatzeari dagokionez, berdintasun-unitateek eta -langileek parte-hartze handia dute koordinazio-egituretan, hala berdintasunari lotutakoetan nola berariazkoak ez direnetan¹⁶. Alabaina, parte-hartze handia izan arren, ez da kasu gehienetan gertatzen. Administrazio orokorreko eta foru administrazioetako berdintasun-unitateetako langileek parte-hartze sistematikoa dute sail barneko eta sailen arteko koordinazio-egituretan; udal mailako berdintasun-langileen kasuan, berriz, heren batek soilik hartzen du parte esparru horretan.

16. diagrama. Berdintasun-alarreko unitateen eta langileen partaidetza euren instituzioetako koordinazio-egitura orokorretan.



¹⁶ Berdintasunerako espezifikoak ez diren egituren kasuan, berdintasun-unitateak edo berdintasun-teknikariak bat baino gehiagotan parte har dezake. Dokumentu honetan, parte-hartzeen kopurua jaso dugu. Txostenaren bigarren ataleko taulek informazio zehatzagoa ematen dute.


Berdintasun-politikak egitean, gizarte-errealitatearen esparru guztietan dagoen berdintasun- eta desberdintasun-egoeren berri jasotzeko azterketa sendo eta eguneratuetan oinarritzeko derrigorra agintzen du 4/2005 Legearen 16. artikulua. Horretarako, administrazioaren estatistika eta azterketa guztietan genero-ikuspegia txertatzea proposatzen du, dimentsio sozial eta pertsonaletan emakume eta gizonen egoera zein den eta zer bilakaera izan duen jakiteko.

Halere, oraindik administrazio publiko gutxi txertatzen dute genero-ikuspegia era sistematikoan beren azterlan eta estatistiketan. Instituzio guztiak aintzat hartuta, estatistika eta inkestetan sexuaren aldagaia gehiagotan ezartzen da era sistematikoan era puntualean baino (halere, bien arteko baturak ebaluazio honetan parte hartu duten instituzioen % 25i baino ez dio eragiten). Ildo beretik, informazio xehakaturik sistematikoa izaten da. Alabaina, instituzioek askoz gutxiagotan hartzen dute aintzat genero-etena, eta askoz gutxiagotan erabiltzen dituzte genero-adierazleak. Normalean puntualki erabiltzen dituzte, eta instituzio gutxiagok, gainera.

Ikerketetan eta estatistiketan genero-ikuspegia txertatzeko helburuaren baitan betiere, 2015ean 154 prentsa-ohar identifikatu ditugu gizon eta emakumeei buruzko informazio xehakatuarekin, eta beste 920 informazio hori xehakatu gabe. Ildo beretik, instituzioek 28 ikerlanetan heldu diote emakumeen eta gizonen egoerari ikuspegi sektorialean oinarrituta.

Erabakigune nagusietan eta ikusgarritasunean emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua lortzeari dagokionez, 2015ean enplegu publikoa eskuratzeko, betetzeko eta sustatzeko epaimahaien erdian baino gehiagotan bete da 4/2005 Legearen 20. artikulua xedatutako baldintza (emakume eta gizonen ordezkartza orekatua)¹⁷. Ildo beretik, sariak emateko, kultura ondareak erosteko eta abarretarako epaimahai gehienetan ere ordezkartza orekatua izaten da (baina ez era sistematikoan). Epaimahaiak osatzean, ordezkartza orekatua izateko klausulak gutxiagotan ikusten dira, nahiz eta «de facto» ordezkartza orekatuak izan. Dena dela, klausula horiek geroz eta gehiagotan agertzen dira enplegu publikoaren esparruan.

17. diagrama. Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua epaimahaietan eta abarretan. 2015




¹⁷ Bete ez dutenek askotan aipatzen dute 3 lagunek osatutako epaimahaiak egoten direla eta, hartara, ezinezkoa dela gizonen eta emakumeen % 40ko partaidetza ziurtatzea.

2.2. Esku hartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak

2015ean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko asmoz VI. Planaren ardatzetan jorratutako 782 jarduketek berri eman dute ebaluazioan parte hartu duten instituzioek. Aurten jakinarazitako jarduketa guztien artean, Eusko Jaurlaritzako sailek % 40 burutu dituzte. Esku-hartze horien erdia baino gehixeago 2014an hasitako jarduketek jarraipena dira, berdintasun-alarreko esku-hartze publikoan hein bateko egonkortasuna dagoen adierazgarri.

18. diagrama. EAEn berdintasun-alarrean jorratutako jarduketek kopurua, instituzioen arabera. 2015



Nolanahi ere, jarduketek kopuruari buruzko ikuspegi horrek ez digu instituzioek ezarritako berdintasun-politiken irismenaren berri handirik ematen eta, horregatik, beraien ezaugarri nagusien laburpena egingo dugu ondoren.

2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak

Administrazioek jorratutako jarduketek helburu ugari izaten dituzte, eta batzuetan helburu bat baino gehiago biltzen dira jarduketa bakarrean. Egindako jarraipenean, VI. Planaren 3 ardatzen arabera sailkatu ditugu esku-hartzeak: balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea (horren baitan sartuta gizartearen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko kultura bultzatzea; emakumeak ahalduntzea eta sustatzea; eta ordezkaritza orekatua); gizarte-antolakuntza erantzunkidea (erantzunkidetasuna helburu); eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea (indarkeria desagerraraztea).

Oinarrizko helburu horiekin batera, Gobernantza aldatzeko helburua ere txertatu da, administrazioek alor horretako jarduera espezifiko eta garrantzitsuen berri eman ahal izateko.

2015ean jorratutako ekintza gehienek (310ek) gizartean balioak aldatzea izan dute helburu; hau da, gizarte-eredu androzentrikotik berdintasunezko gizartera jotzea (esku-hartze guztien % 40 inguru). Jarduketa horien artean ugariak dira prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak, mintegiak, jardunaldiak, ikerketak eta azterketak.


Kopuruan bigarren postuan daude emakumeak ahalduntzea eta sustatzea bilatzen duten esku-hartzeak (239 ekintza, guztizkoaren % 31). Horren baitan egin dira orientazioko eta prestakuntzako ekintzak, bai eta emakumeen egoera hobetzeko orotariko esku-hartzeak ere, ageriko desberdintasunak dauden esparruetan (lan-merkatuan...).

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko helburua izan dute 2015ean burututako 225 ekintzak (% 29k), eta jarraipen honetan identifikatutako aurrekontu osoaren zati handi bat hartu dute, munta handiko zerbitzuak eta baliabideak mugiaraztea eragin baitute.

Pertsonen zaintza erantzunkidetasunean aitortu eta banatzen den gizarte batean, ekoizpenaren eta ugalketaren esparruan emakumeen eta gizonen artean oreka handiagoa bilatzea izan da administrazioek sustatutako ekintzen % 11,5en helburua (90 esku-hartze).

Ehuneko txikiagoan bada ere, erabakiguneetan eta eraginguneetan emakumeen eta gizonen arteko ordezkartza orekatua sustatu dute beste ekintza batzuek (57 jarduketak).

19. diagrama. Helburu politiko jakin bat bilatzen duten jarduketaren kopurua. 2015




2.2.2. Berdintasun-ekintzen gaiak

Gizarte-politika da administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jardunean gehien landu duten alorra. Instituzioek ehundik gora esku-hartze egin dituzte 2015ean hezkuntzaren, osasunaren, kontsumoaren, kulturaren, euskararen eta kirolaren alorretan.

